




## Txikizkako merkataritzaren salmentak %1,8 hazi ziren

Txikizkako merkataritza Euskadin  
Urte bakoitzeko urtarrila. Indizea




Iturria: INE.

INEk berriki argitaratu duen informazioaren arabera, **urtarrilean Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %1,8 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Jardueraren hazkunde horrekin batera, enpleguaren hobekuntza txiki bat (%0,2) ere hauteman zen.

## Aireportuen jarduerak gora egiten jarraitzen du

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak  
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Iturria: AENA.


**Otsailean 450.000 bidaiaria baino gehiago egin ziren EAEko aireportuetan.** Kopuru hori aurreko urteko hileko berean erregistratu zena baino %16,0 handiagoa da eta otsail batean inoiz jaso den erregistrorik handiena da.



## EAEko ekonomiaren termometroa 82,0an kokatu da

### EAEko ekonomiaren termometroa

#### Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

**EAEko ekonomiaren termometroak 82 puntuko balioa izan zuen otsailean, eta hazkunde leuneko eremuan jarraitzen du.** Hain zuzen ere, puntu bat eta sei hamarren murriztu da aurreko hilabetearen aldean, inbertsioaren eta kanpo sektorearen bilakaera apalagoa izan delako. Aitzitik, enpleguak bere joera positiboarekin jarraitzen du.

## Euskadiko KPI %3,1era jaitsi zen otsailean

### EAEko KPI indizea

#### Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

**Otsailean, EAEko KPIa %3,1ean kokatu zen, aurreko hilean baino lau hamarren beherago.** Horrela, eta elektrizitatearen prezioaren jaitsierari esker, berriro beheranzko bideari ekin dio, urtarrileko gorakadaren ondoren. Aitzitik, azpiko inflazioa zertxobait igo zen otsailean, aurreko %3,8tik oraingo %3,9ra, alegia.